



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 5ean

3 ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

—Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 9an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Burlatako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1999ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (3. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (5. or.).
- VI. Burlatako Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (11. or.).
 - VI.1 1999ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (11. or.).
 - VI.2 1999ko abenduaren 31ko finantza-egoera. (13. or.).
 - VI.3 Gorabeherak (14. or.).
 - VI.4 Administrazio-kontratazioa (14. or.).
 - VI.5 Bestelako kudeaketa-gomendioak (15. or.).
 - VI.6 Hirigintza (16. or.).
- VII. Erakunde autonomoak (17. or.).
- I. **eranskina:** Burlatako Udalaren organigrama, 1999ko plantilla organikoaren arabera (21. or.).

II. **Eranskina:** Erabilitako adierazleen definizioa (22. or.).

Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkezturiko **alegazioak** (23. or.).

I. SARRERA

Burlata Iruñerrian dago, eta, 1999ko apirilaren 12ko udal erroldaren arabera, 16.771 biztanle dauzka (15860 biztanle, 1998ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera).

Ondoko erakunde autonomoak sortu ditu bere jarduera aurrera eramateko:

- "Hilarión Eslava" Udalaren Musika Eskola
- Kultura eta Jaietarako Udal Patronatua
- Kirolen Udal Patronatua

Burlata, bestalde, Iruñerriko Mankomunitatean dago sarturik. Mankomunitate hori uraren ziklo integralaz eta hiri hondakin solidoak kudeatu eta tratatzeaz arduratzen da.

Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan ere parte hartzen du Burlatako Udalak.

Ondoko taulan agertzen diren zenbatekoak izan dira 1999an eta 1998an Udalak eta haren erakunde autonomoek izandako aipagarrienak:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak (milioi pezetatan)		Aitorturiko eskubideak (milioi pezetatan)		Abenduaren 31ko langileria	
	1999	1998	1999	1998	1999	1998
Udala	1.351	1.574	1.426	1.470	221	209
Musika Eskola	79	73	78	72	26	24
Kirol Patronatua	158	147	161	152	16	17
Kultura Patronatua	58	52	54	54	4	3

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Burlatako Udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bai udal horren nahiz bere erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko gastu eta diru sarreraren aurrekontuen exekuzioa.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitatei oro har aplikatzekoa den gaintzeko araudiak.

Kontabilitate eta aurrekontu arloan, araubide juridikoa honako hauetan ezarritakoa da: 270, 271 eta 272 zenbakiak dauzkaten foru dekretuak, guztiak 1998ko irailaren 21ekoak, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako Toki Administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira. Horien aplikazioa borondatezkoa da 1999an, eta nahitaezkoa 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenaren helburua honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea da:

- a) Burlatako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 1999-12-31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.
- c) Jarduera ekonomiko-finantzarioaren legez-kotasun printzipioarekiko egokitzapena.
- d) Udalaren finantza-egoera 1999ko abenduaren 31n.
- e) Nafarroako Kontuen Ganbarak 1998ko ekitaldiari buruzko bere azken fiskalizazio-txostenean egindako gomendioen betetze-maila.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraikiz, Burlatako Udalaren (aurrerantzean, "Udala") eta bere erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoaren sistema ezarria dauka, irailaren 21eko 271/1999 Foru Dekretuari egokitutako Toki Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari jarraituz. Dekretu haren bitartez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatzen da aurrekontu-egiturari dagokionez.

Eginiko lanaren aztergai nagusia diru-sarreraren eta gastuen kapitulu ekonomikoen eta ondare-masen berrikuspena izan da, eta antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolari dagozkien puntuak aztertu ditugu.

Hirigintza arloari dagokionez, planeamendua-ren betetzeari buruzko ikuskapen bat egin dugu eta haren aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu ditugu.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin dugu lana.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditu txostenak.

Azterketa lana 2000ko maiatz eta ekainean egin dugu.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Burlatako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 1999ko ekitaldiko finantzen egoera-orriak aztertu ditugu. Udalaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako V. atalean jaso ditugu, laburbilduta.

Gure berrikuspenean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak sektore publikoaren auditoretzarako onetsiriko arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Eginiko berrikuspenean oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. BURLATAKO UDALA

IV.1.1. 1999ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doan 1999ko aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orriak egoki agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian Udalak eginiko eragiketa-multzoa. Hala ere, aurrekontu-egozketa oke-

rrak badaude, hala ekonomiaren nola denboraren ikuspegitik. Alabaina, ez dute eraginik udalak eginiko jardueraren agerpen orokorrean.

IV.1.2. 1999ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena

1999ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak nahiko ongi agertzen du Udalaren ondare-egoera, honako salbuespenok salbuespen: ibilgetua osatzen duten saldoen desegokitasuna edo fidagarritasunik eza, eta udal inbentarioa eguneratuta ez egotea –inbentario hori 1995ekoa da–.

IV.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioari jarraikiz egin da. Dena den, administrazio-kontratazioaren, aurrekontuen eta kontabilitatearen arloei buruzko araudia hainbat puntutan urratu dela antzeman dugu, eta horri buruzko iruzkinak egin ditugu Txosten honetan zehar.

IV.1.4. 1999ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa

Burlatako Udalak 1999ko abenduaren 31n agertzen duen finantza-egoerari buruz aipatzekoa da epe luzeko zorraren zenbateko handia –1288 milioi pezeta– eta aurrezpen garbiaren ehuneko txikia –ehuneko 8–.

IV.1.5. Kontuen ganbarak egin zuen aurreko fiskalizazio txostenean, alegia, 1998ko ekitaldiari buruzkoan, eskaini ziren gomendioen betetzea

Kontuen Ganbarak egin zuen aurreko fiskalizazio txostenean, zeina 1998ko ekitaldiari buruzkoa baita, jaso ziren gomendioen gauzatzeari dagokionez, kontuan eduki behar da txosten hori 1999ko urrian eman zela; horregatik, 1999ko ekitaldian hura garatu ahal izateko egiazko denbora urria izan da.

Aurreko lerrokadan aipaturikoa gogoan izanik, honako puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- 1999ko ekitaldian zehar, Udalak hainbat ekin-tza abiarazi ditu kontabilitate-sistema eta barne kontrolekoa hobetzeko asmoz; zehazki, inbentarioarekin eta administrazio-kontratazioarekin zerikusia daukaten puntuei dagokienez.

- Bestalde, ikusi ahal izan dugu 1999ko ekitaldian ez dela inolako ekintzarik izan aurreko fiskalizazio txostenak hirigintza-arloari buruz eginiko gomendioak betetzeko. Gainera, indarreko araudiari egokituriko hirigintza-planeamendu berria egiteko esleipen-prozedurari ez zaio ekin.

IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

IV.2.1. Udalaren Musika Eskola

Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioak nahiko ongi agertzen du Eskolak eginiko jarduera.

Oro har, Eskolak bere jarduera legezketasun printzipioari jarraikiz egin du.

IV.2.2. Udalaren Kirol Patronatua

Aurkeztu den gastuen eta diru-sarreraren likidazio-orriak nahiko ongi agertzen du Patronatuak eginiko jarduera.

Oro har, Patronatuak bere jarduera legezketasun printzipioari jarraikiz egin du.

IV.2.3. Kultura eta Jaietarako Udal Patronatua

Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioak nahiko ongi agertzen du Patronatuak eginiko jarduera.

Indarreko araudia hainbat puntutan urratu dela ikusi dugu; nagusiki, administrazio-kontratazioaren arloan.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, hona gure gomendioak:

- *Aurrekontu-kudeaketako barne kontroleko prozedurak indartu eta osatzea, eginiko eragiketarak ziurtatu eta bermatzeko; nagusiki, saldoak adostu eta berrikusteari, kontabilitate-printzipioei eta inbentarioak eguneratzeari dagokienez.*

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, bereziki kontratazio-espeditentak formalizatzeari, kontratuak esleitzean lehiaketan printzipioa aplikatzeari eta obren jarraipena aurrekontuen eta kontabilitatearen ikuspegitik egiteari dagokienez.*

- *Langileria-kudeaketaren azterketa orokorra egitea, honako hauek ikertuz: Langileria Departamentua eratzea komenigarria ote den, plantilla egokitua ote dagoen Udalaren beharrezanean, proposituriko lan-kargak eta ordainsariak nahiz gainerako langile-gastuak.*

- *Hirigintza-kudeaketari dagokionez, lehentasuna du indarreko araudiari egokituriko Udal Plan bat egiteak; halaber, betekizun orokor batzuk bete behar dira eta jarduerak kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko sistema hobetu behar da.*

- *Erakunde autonomoei dagokienez, toki entitate publikoak diren aldetik, euren jarduera araudi publikora egokitu behar dute; bereziki, administrazio-kontratazioaren arloan.*

Bestalde, horietako bakoitzari esleitzen zaizkion eginkizunak argi definitu behar dira, bakoitzaren benetako autonomia-maila zehaztu behar da, eta Udalak euren jardueraren gainean bete behar dituen kontrol, kontu-hartzailletza eta tutoretza prozedurak ezarri behar dira.

Kultura Patronatua deszentralizaturiko udal zerbitzu bilakatzea aztertu beharreko gai bat da, kudeatzen dituen baliabideen ehuneko 90 baino gehiago Udalaren beraren ekarpena baitira.

- *Sektore publikoaren Kontabilitateari buruzko Plan orokorrak ezartzen duen urteko oroit-idazkia egitea.*

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak azalduko ditugu.

Azalpenaren erosotasunerako, aipamena honako hauetara mugatuko dugu:

V.1. UDALA

- Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

- Gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko-funtzionalaren arabera.

- 1999ko abenduaren 31ko egoera-balantzea.

- 1999ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

- Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.

Burlatako Udala, 1999

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurreikuspena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan		Kobratutako	Kobratzeke	% de ejecución	% Aitoruriko guz-tizkoaren gainean
		Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitoruriko eskubideak	Aitoruriko eskubideak	Aitoruriko eskubideak				
1	339.915	-	339.915	355.972	2.139	228.688	127.284	105	25	
2	93.070	-	93.070	72.700	437	20.521	52.179	78	5	
3	83.743	309	84.052	81.320	489	58.351	22.969	97	6	
4	770.291	1.250	771.541	808.363	4.858	792.406	15.957	105	57	
5	20.390	-	20.390	17.704	106	13.370	4.334	87	1	
6	-	-	-	1.600	10	1.600	-	-	0	
7	689.703	89.910	779.613	86.891	522	68.602	18.289	11	6	
8	3.387	109.832	113.219	1.427	9	1.427	-	1	0	
9	659.270	-	659.270	-	-	-	-	0	-	
	2.659.769	201.301	2.861.070	1.425.977	8.570	1.184.965	241.012	50	100	

Gastuen aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurreikuspena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan		Ordaintzeke	Betetze-ehunekoa	% Aitoruriko guz-tizkoaren gainean
		Aldaketak	Behin-betiko aurreikuspena	Aitoruriko betebeharrak	Aitoruriko betebeharrak	Ordaindua			
1	773.826	(16.055)	757.771	734.459	4.414	724.732	9.727	97	54
2	180.012	21.564	201.576	173.326	1.042	132.416	40.910	86	13
3	66.139	(8.700)	57.439	57.080	343	57.080	-	99	4
4	175.622	4.350	179.972	168.734	1.014	141.946	26.788	94	13
6	1.367.898	199.742	1.567.640	121.768	732	96.171	25.597	8	9
7	-	1.000	1.000	1.000	6	-	1.000	100	0
8	3.387	-	3.387	2.300	14	2.300	-	68	0
9	92.885	(600)	92.285	92.211	554	92.211	-	100	7
	2.659.769	201.301	2.861.070	1.350.878	8.119	1.246.856	104.022	47	100

Burlatako Udala
1999ko aurrekontuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren arabera
(milaka pezetatan adierazia)

Funzionala	Deskribapena	Langileria-gastuak	Ondasun aruntak eta zerbitzuak	Finantza-gastuak	Transferentzia aruntak	Inbertsio errealak	Kapital transferentziak	Finantza-aktiboak	Finantza-pasiboak	Aitoruriko betebeharrak, guztira	Enunekoa, guztizkoaren gainean
01	Zor publikoa	-	-	56.670	-	-	-	-	92.211	148.881	11
11	Gobernu-organok	13.677	332	-	-	-	-	-	-	14.009	1
12	Administrazio orokorra	30.774	36.589	-	811	11.185	-	2.300	-	81.659	6
22	Segurtasun eta babes zibila	130.326	9.293	-	-	9.360	-	-	-	148.979	11
31	Segurtasun eta babes soziala	305.213	12.055	-	12.178	3.220	-	-	-	332.666	24
32	Gizarte-sustapena	123.578	15.439	-	3.878	-	-	-	-	142.895	11
41	Osasuna	-	1.072	-	-	-	-	-	-	1.072	0
42	Hezkuntza	14.456	24.125	-	31.020	-	-	-	-	69.601	5
43	Hirigintza	68.319	51.728	-	5.113	45.050	-	-	-	170.210	13
44	Komunitate-ongizatea	14.404	3.382	-	6.605	-	1.000	-	-	25.391	2
45	Kultura eta kirola	4.391	5.654	-	103.139	48.608	-	-	-	161.792	12
46	Bestelako komunitate- eta gizarte-zerb.	-	4.817	-	5.990	-	-	-	-	10.807	1
51	Oinarriko azpiegiturak eta garraioak	-	-	-	-	4.345	-	-	-	4.345	0
61	Arapetze ekonomikoa	29.321	8.840	410	-	-	-	-	-	38.571	3
	Guztira	734.459	173.326	57.080	168.734	121.768	1.000	2.300	92.211	1.350.878	100

Burlatako Udala
1999ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

AKTIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan	PASIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan
IBILGETUA	5.374.542	32.302	ONDAREA	3.406.917	20.476
Ibilgetu materiala	3.380.774	20.319	Ondarea	2.255.177	13.554
Lurrak eta ondasun naturalak	602.857	3.623	Apilkatzeke dauden emaitzak	1.151.740	6.922
Eraikinak	2.571.726	15.456			
Makinak, instalazioak eta tresnak	55.003	331	KAPITALEKO DIRU-LAGUNTZAK	880.174	5.290
Garraio-elementuak	23.230	140	Jaso diren kapitaleko diru-laguntzak	880.174	5.290
Altzariak	99.375	597			
Informazio-prozesuetarako ekipoa	19.269	116	EPE LUZEKO ZORRAK	1.288.263	7.743
Bestelako ibilgetu materiala	7.882	47	Jasotako maileguak	1.288.263	7.743
Bideango ibilgetua	1.432	9			
Ibilgetu ez-materiala	1.288	8			
Jabetza intelektuala	1.252	8			
Bestelako ibilgetu ez-materiala	36	-			
Erabilera orokorrerako ondasunak eta inb.	1.991.980	11.972	EPE LABURREKO ZORRAK	166.188	999
Lurrak eta ondasun naturalak	1.598.867	9.609	Aitortutako betebeharren ondoriozko hartzek.	33.537	202
Herri-ondasunetako inbertsioak	393.113	2.363	Agindutako ordainketen ondoriozko hartzek.	105.160	632
Finantza-ibilgetua	500	3	Entitate Publikoak	17.678	106
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	500	3	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	9.813	59
ZORDUNAK	401.467	2.413	EMAITZAK	213.696	1.284
Aitorturiko eskubideen ondoriozko zordunak	400.763	2.409	Ekitaldiko emaitzak	213.696	1.284
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	704	4			
KONTU FINANTZARIOAK	179.229	1.077			
Aldi baterako finantza-inbertsioak	1.123	7			
Kutxa	5.334	32			
Bankuak eta Kreditu Erakundeak	172.772	1.038			
Aktiboa, guztira	5.955.238	35.792	Pasiboa, guztira	5.955.238	35.792

Burlatako Udala
Diruzaintza-gerakinaren egoera, 1999-12-31n
(Pezetak, milakotan)

1 (+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak	264.777
Diru-sarreraren aurrekontukoak. Aurrekontu indarduna	241.012
Diru-sarreraren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	159.751
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	704
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(136.690)
2 (-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak	(166.188)
Gastu-aurrekontukoak. Aurrekontu indarduna	(104.022)
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	(34.674)
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketetakoak	(27.492)
3 (+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren funts likidoak	178.106
4 (+) Finantzaketa-desbiderapen metatu negatiboak	18.030
5 Finantzaketa atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina	55.616
7 Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1-2+3+4-5)	239.109
Diruzaintza-gerakina, guztira	294.725

“Hilarión Eslava” Udalaren Musika Eskola
Gastuen aurrekontuaren betetzea, 1999

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan		Pezetak, milakotan
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko betebeharrak	Ordaintzeke
1. Langileria gastuak	65.173	2.340	67.513	67.512	406	1.547
2. Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	5.533	290	5.823	5.823	35	622
4. Transferentzia arruntak	50	-	50	1.246	7	-
6. Inbertsio errealak	1.700	1.954	3.654	3.654	22	-
8. Finantza-aktiboen aldaketa	300	300	600	597	4	-
Gastuak, guztira	72.756	4.884	77.640	78.832	474	2.169

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea, 1999

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Miles de euros	Pezetak, milakotan
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Biltzeke dagoen dirua
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	21.448	-	21.448	21.558	-
4. Transferentzien bidezko diru-sarrerak	51.008	3.489	54.497	56.019	8.530
8. Finantza-aktiboak	300	1.584	1.884	828	-
Diru-sarrerak, guztira	72.756	5.073	77.829	78.405	8.530

Kirolen Udal Patronatua
Gastuen aurrekontuaren betetzea, 1999

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan	
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko betebeharrak	Ordaintzeke
1. Langileen ordainsariak	82.450	(3.250)	79.200	79.187	476	1.320
2. Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	58.496	1.450	59.946	59.935	360	8.803
3. Interesak	250	(150)	100	99	1	-
4. Transferentzia arruntak	14.850	950	15.800	15.769	95	5.120
6. Inbertsio errealak	1.768	1.000	2.768	2.688	16	500
8. Finantza-aktiboaren aldaketa	800	-	800	800	4	-
Gastuak, guztira	158.614	-	158.614	158.478	952	15.743

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea, 1999

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan	
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Biltzeke dagoen dirua
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	96.928	-	96.928	101.613	611	2.477
4. Transferentzia arruntan bidezko diru-sar.	57.367	-	57.367	56.043	337	2.235
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	2.500	-	2.500	2.525	15	-
8. Finantza-aktiboak	1.819	-	1.819	1.152	7	-
Guztira	158.614	-	158.614	161.333	970	4.712

Kultura eta Jaietarako Udal Patronatua
Gastuen aurrekontuaren betetzea, 1999

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan	
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko betebeharrak	Ordaintzeke
1. Langileak	15.145	1.522	16.667	15.885	95	23
2. Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	33.783	(975)	32.808	32.723	197	5.713
3. Interesak	1	-	1	1	-	-
4. Transferentzia arruntak	10.151	(770)	9.381	9.381	56	911
6. Inbertsio errealak	100	223	323	323	2	-
Gastuak, guztira	59.180	-	59.180	58.313	350	6.647

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea, 1999

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan	
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Biltzeke dagoen dirua
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	626	-	626	852	5	-
4. Transferentzia arruntan bidezko diru-sar.	53.547	-	53.547	53.119	319	3.172
8. Finantza-aktiboak	5.007	-	5.007	-	-	-
Diru-sarrerak, guztira	59.180	-	59.180	53.971	324	3.172

VI. BURLATAKO UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

VI.1 1999ko AURREKONTUAREN BETETZE-ARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

• Gastuen eta diru-sarreraren 1999ko aurrekontuan 2.660 milioi pezetako hasierako kredituak daude. Hasierako aurreikuspen horiek hainbat aurrekontu-aldaketa jasan dituzte gastu eta diru-sarreretan. Aldaketa horien zenbatekoa 201 milioi pezetakoa da, eta, funtsean, aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakina kontuan hartzearen ondoriozkoak dira.

Beraz, behin betiko aurreikuspenak edo aurrekontu bateratua 2861 milioi pezetakoak dira gastu eta diru-sarreraren arloan.

• Aitorturiko betebeharrak 1351 milioi pezetakoak dira, eta ehuneko 47ko betetze-maila daukate. Hori azaltzen duena, nagusiki, inbertsioen kapituluaren betetze-maila da –ehuneko 8koa; hau da, 1446 milioi pezeta gutxiago inbertsioetan, nahiz eta horietako batzuk 2000ko ekitaldian exekutatu ari diren–. 1999ko behin betiko aurrekontuan aurreikusi diren eta ekitaldi horretan exekutatu ez diren inbertsiorik garrantzitsuenak honako hauek dira: igerileku estalia, kultur etxea eta haur eskola.

Ehunekoetan, honela xehekatzen dira:

	Ehunekoak	
	1999	1998
Gastuak		
Funtzionamendukoak	80	62
Inbertsiokoak	9	30
Finantza-zamakoak	11	8
Guztira	100	100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuena funtzionamendu-gastuei dagokiena da –langileak, ondasun eta transferentzia arruntak–, Udalak gastatzen dituen 100 pezeta bakoitzeko 80 hartzen baititu (62 pezeta, 1998an), eta langileentzat, zehazki, 54 pezeta erabili dira (41 pezeta 1998an). Inbertsio errealean kapituluaren, aipatzekoa da bere garrantzi erlatiboak behera egin duela aurreko ekitaldiarekin alderatuz; batez ere, 1999ko ekitaldirako aurreikusitako inbertsio nagusiak ez direlako exekutatu.

Langileez denaz bezainbatean, 1999 eta 1998ko abenduaren 31n Udalaren zerbitzuan zihardutenak honako hauek dira:

Izaera	Kopurua	
	1999	1998
Funtzionarioak	67	68
Lan-kontratudun finkoak	19	18
Behin-behinekoak eta programak	135	123
Guztira	221	209

Administrazio eta kontabilitatearen arloan 10 pertsonak lan egiten dute, idazkaria eta kontu-hartzailea barne.

Goi-karguen ordainsariak 11,6 milioi pezetakoak dira 1999an (11,4 milioi pezeta 1998an), eta, horietatik, 5 milioi pezeta alkatearen ordainsaria dira (4,9 milioi pezeta 1998an).

• Aitorturiko eskubideei dagokienez, 1426 milioi pezetakoak dira. Betetze-maila ehuneko 50ekoa da, eta, funtsean, horren azalpena hauxe da: kapital transferentzietan buruzko kapituluaren betetze-maila –aurreikusitako zenbatekoa, 780 milioi pezeta; benetako zenbatekoa, 87 milioi pezeta; hau da, betetze-maila ehuneko 11koa da–; izan ere, 1999an ez dira, azkenean, 659 milioi pezetako zenbatekoa egiten zuten hainbat mailegu eskatu. Bai mailegu horiek bai 1999ko ekitaldirako aurreikusirik zeuden baina eskuratu ez ziren kapital transferentzietan xede zuten lehen aipaturiko inbertsioak finantzatzea; inbertsio horiek, partzialki, 2000ko ekitaldian egiten ari dira.

Diru-sarreraren osaera, ehunekoetan, hauxe da:

Diru-sarrerak	Ehunekoak	
	1999	1998
Tributu bidezkoak	36	35
Transferentzien bidezkoak	63	64
Ondarearen ondoriozkoak	1	1
Guztira	100	100

Gaineko taulan ikus daitekeenez, finantza-iturriek agertzen dituzten ehunekoak oso antzekoak dira 1999ko eta 1998ko ekitaldietan. Hau da, 1999ko aurrekontuko finantza-iturri nagusia transferentzietan osaturikoa da: aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 63 pezeta finantza-iturri horretatik heltzen dira. Tributuen bidezko diru-sarrerak, ordea, ehuneko 36 egiten dute. Bestalde, aipatzekoa da ondarearen ondoriozko diru-sarreraren apaltasuna,

diru-sarrera guztien ehuneko 1 baizik egiten ez baitute.

Ondoko taulan agertzen dira tributu-figura nagusiak eta horiek 1999an eta 1998an daukaten zenbateko aitortua (milioi pezetatan):

Tributu-figura	Zenbatekoa	
	1999	1998
Hirilur kontribuzioa	201	194
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	52	83
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	17	20
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	73	59
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	86	79
Hegalkinaren okupazioa	20	21
Hilerria	4	6
Ibilgailuetarako Pasabideak	6	5
Hirigintza-lizentziak	11	4
Irekiera-lizentziak	6	7

Aipatzekoa da hirilur kontribuzioaren garrantzia berezia, gainontzeko tributu-figurena baino handiagoa baita, alde handiz. Bestalde, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ondorioz bildutako diru-kopuruak 1999an izan duen beherakadaren zergatia haxe da: 1998ko ekitaldiko zenbatekoak bere barnean hartu zuen aurreko ekitaldiari kontzeptu horreketan zegokion zenbatekoa -41 milioi pezeta-, zeina ez baitzen urte horretako aurrekontuaren likidazioan erregistratu.

Udalak ordainarazitako zergei dagokienez, jarraian agertzen da, zerga-moten arabera, zein diren Udalak aplikaturiko tarifak, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak baimentzen dituen gehieneko kopuruekin alderatuta:

Tributu-figura	Ehuneko/Indizea	
	Udala	Toki Ogasunei buruzko Legea
Hirilur kontribuzioa	0,364	0,10 - 0,50
Landalur kontribuzioa	0,70	0,10 - 0,80
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32	1 - 1,4
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	14	8 - 20
5 urte bitartean	3	2,2 - 3,3
10 urte bitartean	2,9	2,1 - 3,2
15 urte bitartean	2,7	2,0 - 3,1
20 urte bitartean	2,7	2,0 - 3,1
Eraikinak, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Udalak ez ditu ordainarazten luxuzko gastuen gaineko zergak, ezta etxebizitza hutsen gainekoak ere; izan ere, gaur egungo legeriaren arabera, horiek aukerakoak dira toki entitatearentzat.

- 1999ko betetze-egoerak 75 milioi pezetako aurrekontu-superabita agertzen du (104 milioi pezetako defizita 1998an), eskubideen eta aitorturiko betebeharren arteko aldearen ondorioz. Saldo horri finantzaketa-desbiderapenen eta gastuak 1998ko diruzaintzako gerakin likidoa erabiliz finantzatzearen ondorioz egin beharreko doikuntzak egiten baldin bazaizkio, ekitaldiko aurrekontu-emaizta 107 milioi pezetako superabiteraino igotzen da (63 milioi pezeta 1998an).

- 1999ko abenduaren 31n ordaintzeke dauden kopuruak -gastuen erresultak- 139 milioi pezeta-koak dira, eta, horietatik, 35 milioi pezeta aurreko ekitaldietatik datoz. Kobratzeke dauden kopuruak -diru-sarreraren erresultak- guztira 401 milioi pezetako zenbatekoa egiten dute, eta ehuneko 40ren jatorria aurreragoko ekitaldietan dago.

- 1999ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina 295 milioi pezetakoa da (216 milioi pezeta 1998an), eta honako hauen emaitza da: ordaintzeke dauden 166 milioi pezetako zorrak, kobratzeke dauden 265 milioi pezetako diru-sarrerak, 178 milioi pezetako funts likidoak, eta 18 milioi pezetako finantzaketa-desbiderapen metatu negatiboak. Itxitako aurrekontuetan kobratzeke dauden kopuruak ehuneko 86 inguru kobratzen zailtzat jotzen dira. Diruzaintza-gerakina banaturik dago finantziario atxikia duten gastuei atxikitako gerakinaren eta gastu orokorretarako gerakinaren artean. Horien zenbatekoak 56 milioi eta 239 milioi pezetakoak dira, hurrenez hurren.

- Azkenik, hurrengo taulan erakusten da, ehunekoetan, 1999ko eta 1998ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizunen arabera xehekatuturik:

Deskribapena	Ehunekoak	
	1999	1998
Zor publikoa	11	8
Gobernu-organoak	1	1
Administrazio orokorra	6	5
Segurtasun eta babes zibila	11	9
Segurtasun eta babes soziala	24	20
Gizarte-sustapena	11	6
Hezkuntza	5	5
Etxebizitza eta hirigintza	13	12
Komunitate-ongizatea	2	1
Kultura eta kirola	12	11

Bestelako komunitate-eta gizarte-zerbitzuak	1	1
Oinarrizko azpiegiturak eta garraioak	0	18
Araubide ekonomikoa	3	3
Guztira	100	100

Datu horiei buruzko azterketatik, azpimarratzekoa da 1999an azpiegituretan eginiko gastuak garrantzia galdu duela, ekitaldi horretako inbertsioak oso apalak izan baitira. Bestalde, gainontzeko kontzeptuen ehunekoak antzekoak dira bi ekitaldietan, nahiz eta gehikuntza txiki batzuk izan dituzten, azpiegituren beherakada nabarmenaren ondorioz.

VI.2 1999ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA.

1999an, Udalak honako ratio edo adierazleak dauzka, 1998ko datuekin konparatuta:

Adierazleak	1999 ⁽¹⁾	1998 ⁽¹⁾
Aurrekontu-superabita(defizita) (pezetak, milioitan)	75	(104)
Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	85.026	92.659
Gastuak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	80.548	99.221
Finantza-zama biztanle bakoitzeko (pezetatan)	9.039	7.902
Tributuen bidezko diru-sarrerak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	30.409	32.276
Kobrantsen betetzea (ehunekoetan)	83	89
Ordainketen betetzea (ehunekoetan)	92	91
Zorpetze-maila (ehunekoetan)	11	11
Zorpetze-muga (ehunekoetan)	19	17
Aurrezki garbia (ehunekoetan)	8	6
Langileria-indizea (ehunekoetan)	54	41
Inbertsio-indizea (ehunekoetan)	9	30
Diru-laguntzekiko menpekotasuna (ehunekoetan)	63	64

(1) Kalkulua egiteko, 1999rako 16.771 biztanleko populazioa aintzat hartu da, 1999ko apirilaren 12ko udal erroldari jarraituz; 1998rako, 15.860 biztanlekoa, 1998ko urtarrilaren 1eko erroldari jarraituz.

Datu horien azterketatik, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 1999ko ekitaldian, aurrekontu-emaizak 179 milioiko gehikuntza izan du 1998koarekiko. Horren azalpen partziala izan liteke aipaturiko ekitaldian eginiko inbertsioen beherakada.
- Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak ehuneko 8 jaitsi dira 1999an aurreko ekitaldiarekiko. Gastuek, ordea, ehuneko 19 egin dute behera, eta horrek ere ager lezake emaitzak gora egin izana.
- Biztanle bakoitzeko finantza-zama igo egin da 1999ko ekitaldian, hain zuzen ere hainbat mai-

leguren gabezialdia ekitaldi horretan bukatu delako.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko 6 jaitsi dira 1999an. Horren zergatia, nagusiki, hauxe izan da: 1998ko aurrekontuaren likidazioak diru-sarreraren artean jasotzen zituen, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren kontzeptuan, ekitaldi horretakoez gain, 1997ko ekitaldikoak ere, 41 milioi pezetako zenbatekoarekin.

- Zorpetze-mugak 1999an izandako gehikuntzaren zergatia, funtsean, jasotako transferentzia arrunten gorakada da (nagusiki, Toki Ogasunen Funtsean parte hartzea), zeina funtzionamendugastuen gorakadak ez baitu guztiz estali. Bestalde, zorpetze-maila konstante mantendu da bi ekitaldietan, eta horrek, zorpetze-mugaren gorakadarekin batera, Udaleko aurrezki garbiaren gehikuntza azaltzen du.

- Langileria-indizeak gora egin du langileria-gastuak ehuneko 14 igo direlako. Izan ere, langile berriak kontratatu dira eta 1999ko ekitaldian Udalak bere gain hartu ditu tailer-eskolako ikasleen soldatak; soldata horiek, aurreko ekitaldian, INE-Mek ordaintzen zituen. Halaber, langileria-indizearen gehikuntzak agertzen du inbertsio-indizean izandako jaitsieraren eragina, zeinaren ondorioz gainontzeko gastu-kontzeptuek guztizkoaren gaineko ehuneko handiagoa hartzen baitute.

- Bi ekitaldietan, Udalaren baliabideen ehuneko 60 baino gehiago beste entitate batzuetatik jasotako transferentzietatik etorri dira.

1999 eta 1998ko abenduaren 31ko finantza-egoerei dagokienez, milioika pezetatan adieraziko dugu ondoko adierazleen zenbatekoa:

Adierazleak	1999	1998
Diruzaintza-gerakina	295	216
Epe luzerako zorra	1.288	1.380

Hau da, 1999an diruzaintza-gerakinak epe luzeko zorraren ehuneko 23 hartu du (1998an, ehuneko 16), eta finantza-iturri eskas samarra da Udalak aurreikusitako inbertsioetarako. Hain zuzen ere, inbertsio horiei ekin ahal izateko mailegu berriak lortzea aurreikusten du Udalak.

1999ko abenduaren 31n, epe luzerako zorraren zenbatekoa handia da, eta ekitaldian lorturiko aurrezki gordinaren 5 halako eta garbiaren 12 halako balio du (7 halako eta 20 halako 1998an).

Arlo horretan, 1999ko ekitaldian zehar Udalak diruzaintza-gerakina handitu eta epe luzerako bere zorra murriztu du. Halaber, aurrezki gordina

eta aurrezki garbia igo egin dira, hala balio absolutuetan nola erlatiboetan; nagusiki, diru-sarrera arruntek gora egin dutelako funtzionamendu-gastuen gorakadak baino ehuneko handiagoan.

1999an zehar izandako bilakaera hori positiboa izan da Udalaren finantza-egoerarako; horregatik, gure iritziz Udalak joera horri eutsi behar dio, diru-sarrera arrunt gehiago sortuz, bere funtzionamendu-gastuak murriztuz eta epe luzearako zorrak berez duen zenbateko handia igotzerakoan jokabide zuhurra areagotuz.

1999ko abenduaren 31n itzultzeke dauden maileguen ezaugarri nagusien xehekapena eginen dugu jarraian:

Entitatea	(Pezetak, milakotan)		Epermuga
	abenduaren 31n itzultzeke dagoen zenbatekoa	Interes tasa %	
Iruñeko Kutxa (*)	28.066	6,049	2009
Iruñeko Kutxa	356.908	4,330	2006
Iruñeko Kutxa (*)	24.904	4,750	2018
Iruñeko Kutxa	417.874	4,137	2011
Iruñeko Kutxa	163.583	5,250	2012
Nafarroako Aurrezki Kutxa	67.099	4,910	2004
Nafarroako Aurrezki Kutxa (*)	229.728	4,750	2019
Guztira	1.288.162		

(*) Hipoteka-bermea

Azkenik, jarraian agertzen dugun taulan konparaturik agertzen dira, hainbat ratori dagokionez, Burlatako Udaleko 1999ko eta 1998ko informazioa eta biztanleria-tarte berekoak diren Nafarroako udalen 1997rako batez bestekoa ⁽¹⁾.

Ratioak	1997an 10.000tik 50.000 biztanlera bitartekoak		
	ziren udalak	1999	Burlata 1998
Gastu arrunta biztanle bakoitzeko (pezetatan)	80.258	67.593	66.138
Diru-sarrera arrunta biztanle bakoitzeko (pezetatan)	99.772	79.665	74.166
Tributu bidezko diru-sarrera biztanle bakoitzeko (pezetatan)	54.593	30.409	32.276
Zorpetze-muga (ehunekotan)	23	19	17
Zorpetze-maila (ehunekotan)	7	11	11
Zorpetze-ahalmena (ehunekotan)	16	8	6

(1) *Datu hauek Toki Administrazioako Departamentuak emandakoak dira, eta Ganbara honek Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean eman zituen argitara.*

(2) *Zerbitzu publikoak...*

Konparazio honen mugak gogoan izanik (2), zeinak bereziki garrantzitsuak baitira Burlataren kasuan, honako hauek dira jakingarri behinenak:

- Burlatan, biztanle bakoitzeko gastu eta diru-sarrera arruntak nabarmenki baxuagoak dira biztanleria-tarte bereko Nafarroako udalen batez bestekoa baino.

- Burlatako biztanleengandik lortzen diren tributu bidezko diru-sarrerak baxuagoak dira, ehuneko 40 baino neurri handiagoan, bere tarteko udalen batez bestekoa baino.

- Bere zorpetze-muga eta ahalmena batez bestekoa baino baxuagoak dira; zorpetze-maila, ordea, handiagoa.

VI.3 GORABEHERAK

Udalak eskuratu digun informazioaren arabera, ebazteke dauden errekurtsorik garrantzitsuenak langileria-arloko aferei buruzkoak dira. Eskuarki, plantilla organikoa, ordainsari osagarriak eta gradu nahiz maila aitortpenak onesteko Osoko Bilkurak harturiko erabakien edo Alkatetzak emandako ebazpenen aurka aurkezten dira. Errekurtsio horietatik erator litezkeen gorabehera ekonomikoak zenbatestea ezinezkoa da.

VI.4 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehekaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

VI.4.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Erosketa-sisteman eginiko laginketan oinarrituz, honako gomendio orokor hau egin nahi dugu:

Udalari eta erakunde autonomoei aplikaturiko erosketa-prozedura idatziz garatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzailetzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.

Kontratazio-espeditenteak aztertu ondoren, azpimarratzekoa da ezen, zenbaitetan, horiek ez dutela biltzen araudiak eskaturiko dokumentazio guztia.

Kontratazioari buruzko araudia zorrozki aplikatzea dadila gomendatzen dugu.

VI.4.2. Inbertsioak

1999ko ekitaldian zehar ez da zenbateko aipagarria duen inolako obraren kontrataziorik esleitu. Inbertsioen kapituluaren 1999ko ekitaldian aitorturiko betebeharren zenbatekoa, batez ere, lehenagoko ekitaldietan esleituriko obrei (horietako batzuk Kontuen Ganbarak aztertu zituen 1998ko ekitaldian) eta Udaleko langileek zuzenean eginitako obretarako materialak erosteari dagokie.

Horrela, ba, lehenagoko ekitaldietan hasitako inbertsioen bukaera aztertu dugu.

Era berean, publikotasuna duen prozedura negoziatuaren bitartez 4,3 milioi pezetako zenbatekoan esleituriko igogailu bat erosi eta instalatzeko kontratazio-espeditentia aztertu dugu.

Inbertsioak aurrekontuen eta kontabilitatearen ikuspegitik aztertuz, azpimarratzekoa da ekitaldiko eragiketarik ez direla beste ekitaldietakoetatik behar bezala bereizi. Dena den, aurreko ekitaldiarekin alderatuz nolabaiteko hobekuntzaren bat izan dela nabaritu dugu.

Gure azterketaren ondorioetan oinarrituz, hauxe gomendatzen dugu:

- *Udaleko langileek eginitako obretarako materialak erosteko baliabideen kudeaketa optimizatzea.*
- *Kontratazio-espeditentietako dokumentazioa behar bezala osatzea.*
- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, batez ere kontratazio-espeditentia formalizatzeari buruzko alderdi batzuei eta kontratuak esleitzerakoan lehiakortasun printzipioa aplikatzeari dagokienez.*

Ildo horretan, azpimarratu behar da Udalak jadanik abiarazi dituela administrazio-kontratazioari buruzko araudia hobeto betetzeko hainbat ekintza.

VI.5 BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzari dagokionez, Kontuen Ganbararen aburuz Udalak bete behar dituen gomendio nagusiak bere antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolen sistemak hobetzeko.

Hainbat alderdiri dagokionez, aipatzen diren gomendioak ezarrita edo ezarpen-fasean daude 2000ko ekitaldian zehar.

VI.5.1. Antolaketa orokorra

Kontuen Ganbarak hauxe gomendatzen du:

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendu bat egitea, horren bidez Udaleko organo exekutiboaren eskumenak definitu eta euren artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.*

- *Plantilla langileria-beharrizanei egokitua ote dagoen jakiteko azterlan bat egitea, plantillaren arrazionaltasuna, lanpostu bakoitzeko lan-zama eta kasu bakoitzeko ordainsari-mailak eta gastu sozialak aztertuz.*

- *Kudeaketarako oinarritzko prozedurak idatziz jartzea; exekuzio-fase bakoitza identifikatu behar da, eta bakoitzari erantzule bat esleitu behar zaio.*

- *Udalak eta Udal Patronatu bakoitzak zeinek bere gain hartu beharreko gastu eta diru-sarrerak argitu eta zehaztea.*

- *Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gain egin beharreko kontrol eta tutoretza behar bezala bermatzeko prozedurak taxutzea.*

VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Udal ondasunak (bai jabari publikoak bai ondarezkoak eta herri-ondasunak) eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1995eko udal inbentarioa eguneratzea.*

- *Prozedurak taxutu eta aplikatzea, udal inbentarioaren etengabeko eguneratzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko.*

- *Ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeke eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta bahetzea, Udalaren ondasunak behar bezala ager ditzaten.*

VI.5.3. Langileak

Arlo honetan eginitako azterketatik, aipatu nahi genuke Udaleko langile batek 1998ko abenduan eta 1999ko urtarrilean ordainsaria jaso duela, aldi berean, aparteko orduengatik eta lanaldia luzatzeari dagokion osagarriarengatik. Ordainsari hori alkateak onetsi zuen, nahiz eta idazkariak eta kontu-hartzaileak sinaturiko txosten baten bidez alkateari jakinarazten zitzaion aldibereko ordainketa horiek bateraezinak zirela.

Halaber, azpimarratu nahi dugu maila jakin bat duen udal-langile bat goragoko maila duen beste

bat ordeztzen ari dela, eta Udalak goragoko maila horren arabera finkatu dituela haren ordainsariko osagarriak. Horrela, ba:

Gure gomendioa da bi maila horien arteko aldeari dagokion ordainsaria eman dadila gorago -ko lanpostu bat bitarte baterako betetzeagatiko berariazko osagarri baten bidez.

Bestalde, ikusi ahal izan dugu Udaltzainek eginitako aparteko orduak baimendu eta onesten dituen pertsonak berak bere aparteko orduak baimendu eta onesten dituela; horrela, horiek benetan egin izanaren gaineko kontrolik ez dago.

Langileria arloko gomendio orokorrak hauexek dira:

- *Azter bedi Langileria Departamentu bat era -tzearen gaia. Departamentu hori arloari dagozkion eginkizunen kudeaketaz –besteak beste, nominak egiteaz– arduratuko litzateke.*

- *Nominak barnean edo kanpoan egitea alde batera utziz, horiek egokiak direla bermatzeko prozedura bat antola bedi. Prozedura horrek behar diren egiaztapen eta barne koherentziako bideak izanen ditu.*

- *Kanpoko aholku-emaileei eskuraturiko dokumentazioa kontrolatu ahal izateko prozedurak ezar bitez.*

- *Osa bedi langileei buruzko administrazio-espeditanteetan dagoen dokumentazioa, espeditante horiek behar den dokumentazio guztia izan dezaten. Zehazki, langileen familia-egoerari buruzko zinpeko aitortpenak urtero lor bitez.*

- *Langileen absentismoari buruzko zenbatespeneko informazioa presta bedi.*

- *Aparteko orduak egiten dituenaz beste pertsona batek baimendu eta onets ditzala.*

- *Ordainsari guztiei araudi fiskala aplikatzea.*

VI.5.4. Tributu bidezko diru-sarrerak; tasak; prezio publikoak

Hauexek gomendatzen dugu:

- *Prozedurak taxutu eta sistematikoki aplikatu bitez diru-sarreraren kudeaketako datuak egiaztatuta ahal izateko eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin eta diru-bilketakoekin adostu eta alderatu ahal izateko, horrela kontabilitate- eta aurrekontu-informazioaren segurtasun eta fidagarritasun handiagoak lortzeko.*

- *Tributu-figura bakoitzaren errolden aldaketak formalki onets bitez.*

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldiro egunera bitez.*

VI.5.5. Zordunak

Gure gomendioa da berandutzako zordunen saldoen –bereziki, zaharrenean– onargarritasuna azter dadila, eta, hala behar denean, finantzen egoera-orrietan horiei baja ematea.

VI.5.6. Alderdi orokorrak

Hona gure gomendioak:

- *Gastuak eta diru-sarrerak euren sortzapenaren arabera kontabilizatzea aurrekontuan, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko.*

- *Gastuak eta diru-sarrerak euren izaera ekonomikoaren arabera egozte aurrekontuari.*

- *Legeek ezarritako epeetan egin eta onets daitezela aurrekontuak, eta likidazioa azkarrago egin dadila.*

- *Aurrekontu-aldaketen espeditanteak behar bezala osatzea, kasu guztietan informazioa idatziz jasoz eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrekontu-aldaketa guztiak argitaratuz, horien kontabilizazio, informazio eta onetspen uneekin denboraren aldetik desdoituz egon gabe.*

VI.6 HIRIGINTZA

VI.6.1. Alderdi orokorrak

Burlatako Hirigintza Antolamenduko lehen Plan Orokorra (HAPO) 1980an onetsi zen. Gaur egun indarra duena beste HAPO bat da, zeina 1980koaren aldaketa bat baita, 1990ko abenduaren 21ean Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia. Horren indarraldia hasi zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik aurrera, hau da, 1991ko maiatzaren 20an.

Aipatu beharrekoa da indarreko HAPOa Lurzoruari buruzko aurreko Legearen ezaugarrien arabera dela –hau da, 1976koaren arabera, zeina indargabetua izan baitzen–, Hirigintza Araubidea

Aldatzeari eta Lurzoru Balioespenei buruzko uztailaren 25eko 8/1990 Legea onetsi ondoren onetsi zen arren.

Ildo horretatik, gogoratzekoa da akats hori adierazi genuela Burlatako Udaleko 1994 eta 1998ko ekitaldiei buruzko fiskalizazio txostenetan, baina ez dela ezer egin hori konpontzeko.

Bestalde, IV.1.5 atalean aipatu dugun bezala, 1999ko ekitaldian Udalak ez du inolako ekintzarik

egin hirigintza-arloari buruz aurreko fiskalizazio txostenean eginiko gomendioak gauzatzeko.

Era berean, indarreko araudiari egokituriko Plan berri bat egiteko esleipen-prozedurari ez zaio ekin gaur egun.

VI.6.2. Azterlan ekonomiko-finantzarioak/ Jarduketa Programak

Udalak ez du azterlan ekonomiko-finantzarioen idatzizko jarraipen berariazkorik egin, ezta jarduketa-programen betetze-mailari buruzkorik ere.

VI.6.3. Planeamenduaren garapen eta exekuzioa

Kontuen Ganbarak eginiko azken ikuskapenaz geroztik, Burlatako planeamenduaren garapena ia deuseza izan da. Dena den, planeamenduaren exekuzioa hasieran sustatzen duena ekimen pribatua izan dela eztaba daezina da.

Planeamendu-aldaketei dagokienez, azpimarratzekoa da 1994ko ekitaldiaz geroztik aldaketa puntual bat baizik ez dela onetsi, "N-4" eta "N-17" unitateak ukitzen dituen, eta horren justifikazioa da zenbait instalazio lekuz aldatzea ahalbidetu beharra zegoela, horietan gertatutako sutea zela-eta. Aldaketa horren onespena 1998ko abenduaren 16ko 150. NAO n argitaratu zen.

VI.6.4. Kontabilitatearen eta hirigintzaren arloko betebeharrak

Udalak ez du lurzorua udal ondarea eratu, eta formalki ere, ondare horretatik lorturiko baliabideak ez daude berariaz atxikirik ondarea gorde, mantendu eta handitzera. Era berean, ez du aurrekontuan baliabide arrunten ehuneko 5 kontsignatzen lurzorua udal ondareko inbertsioetarako.

"Orubeen eta eraikin gabeko lur-sailen erregistroa" ezarrita duen arren, erregistro hori ez dago eguneratuta.

VI.6.5. Hirigintza-kudeaketa

Udalak hirigintza-arloko teknikariak dauzka plantillan; teknikari horien eginkizuna da hirigintza-planeamenduaren kudeaketa eta izapidaketa teknikoak.

Azkenik, aurreko iruzkinetatik honako gomendio hauek ondorioztatzen dira:

- *Hirigintza-arloan indarra duten legeei egokitu -riko Udal Plana egin bedi, lehentasunez.*
- *Ezarritako izaera orokorreko hirigintza-betebeharrak bete bitez.*

- *Azterlan ekonomiko-finantzarioen eta Jarduketa Programen betetze-mailari buruzko jarraipen egokia egin bedi.*

VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK

VII.1. "HILARION ESLAVA" UDALAREN MUSIKA ESKOLA

"Hilarión Eslava Udalaren Musika Eskola" patronatu edo erakunde autonomoak Burlata eta Atarrabiako Udaletan ematen du zerbitzua, eta haren Batzorde Zuzentzailean biak daude ordezkak. 1999an, Eskolak 79 eta 78 milioi pezetako betebeharrak eta eskubide aitortuak erakusten ditu, hurrenez hurren (73 eta 72 milioi pezeta, hurrenez hurren, 1998ko ekitaldian); horrela, ba, bi ekitaldian milioi bat pezetako defizita sortu da. Hurrengo tauletan zenbateko horiek xehekaturik agertzen dira, izaera ekonomikoaren arabera:

	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	1999	1998	1999	1998
Diru-sarrerak				
Matrikulak eta jasotako ordainketak	21	21	27	29
Bestelako diru-sarrerak	1	1	1	1
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	24	18	31	26
Atarrabiako Udalaren diru-laguntza	11	11	13	14
Burlatako Udalaren diru-laguntza	21	21	28	30
Guztira	78	72	100	100

	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	1999	1998	1999	1998
Gastuak				
Langileak	68	61	86	84
Inbertsioak	4	6	5	8
Funtzionamendua	6	5	8	7
Bestelako gastuak	1	1	1	1
Guztira	79	73	100	100

Aurreko tauletan ikusten da 1999ko ekitaldiko gastu eta diru sarreraren egitura antza handia duela 1998ko ekitaldikoarekin. Ikus daitekeenez, gastu-egitura funtsean langileen arloan biltzen da; hori logikoa da, Eskolak ematen duen zerbitzua izaera kontuan hartzen bada. Diru sarrerei dagokienez, Eskolak sorturiko baliabideek aurrekontuaren ehuneko 28 egiten dute, eta kanpo finantzaketa –diru laguntzen bidezkoa– beharrezko gertatzen da. Diru laguntza hori Nafarroako Gobernutik eta Burlata nahiz Atarrabiako Udaletatik jasotzen da, eta ehuneko 72 egiten du.

Ikusi ahal izan dugu Eskolako hainbat langilek, aurreko ekitaldian bezalaxe, berariazko osaga-

rriak jasotzen dituela. Osagarri horiek Zuzendaritza Batzordeak onetsiak eta Udaleko Osoko Bilkurak berretsiak dira, eta hainbat kontzepturi dagozkie; horien artean, nabarmentzekoa da borondatezko ordainketarako osagarria, zeina irakasleekin ados jarritz erabaki baitzen. Gai horri dagokionez, jakinarazi zaigu jadanik hasia dagoela Patronatuak langileentzako 2000. urterako eta ondokoetarako lan-hitzarmena negoziatzeko prozesua.

Jarraian, hainbat kudeaketa-gomendio azalduko ditugu. Gomendio horiek Eskolako barne kontrolako sistemak hobetzeko komenigarritzat jotzen ditugu.

- *Betebeharrak edo eskubideak erakartzen dituen egintza orok kontu-hartzailtzako kontrola edo barne kontrola igaro beharko du.*
- *Aurrekontuak onetsi behar dira horiek aplikatzen diren ekitaldia hasi baino lehen, eta behar den egunean likidatu behar dira.*
- *Langileen espedienteak dokumentuz behar bezala hornitzeko, langileen famili egoerari buruzko zinpeko aitortpenak urtero lor bitez.*
- *Diruzaintzari dagokionez, kutxako kontaktak eta bankuen esparruko berdinkatzeak behar bezala horni bitez dokumentuz.*
- *Eragiketak erregistratzeaz denaz bezainbatean, zorrozki jarrai bedi sortzapen-printzipioa.*
- *Azkenik, Musika Eskolak eginiko jarduerak arrazoizkoak eta legezkoak direla ziurtatu ahal izateko beharrezkoak diren barne prozedura eta mekanismoak ezarri behar ditu Udalak.*

VII.2. KIROL EN UDAL PATRONATUA

Kirolen Udal Patronatuak 158 eta 161 milioi pezetako betebeharrak edo eskubide aitortuak, hurrenez hurren, agertzen ditu 1999ko ekitaldian (147 eta 152 milioi pezeta, hurrenez hurren, 1998an), eta 3 milioi pezetako superabita izan du (5 milioi pezeta 1998an). Zenbateko horiek ondoko taula hauetan agertzen dira, euren izaera ekonomikoa araberaren arabera xehekaturik:

	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	1999	1998	1999	1998
Diru-sarrerak				
Udal igerilekuetako kuotak	91	87	57	57
Bestelako dirusarrerak	15	10	9	7
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	2	3	1	2
Burlatako udalaren diru-laguntza	53	52	33	34
Guztira	161	152	100	100

Gastuak	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	1999	1998	1999	1998
Langileak	79	72	50	49
Zerbitzuak eta ondasunak erostea	60	56	38	38
Transferentziak	16	15	10	10
Bestelako gastuak	3	4	2	3
Guztira	158	147	100	100

Bi ekitaldi horietan, gastuen eta diru sarreren egiturak oso antzekoak dira. Ikus daitekeenez, gastu-egitura zerbitzuen funtzionamenduaren ondoriozkoen inguruan biltzen da. Diru sarrerei dagokionez, zentroak sorturiko baliabideek aurrekontuaren ehuneko 66 egiten dute, eta ehuneko 34ko kanpo finantzaketa behar du, Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren beraren diru laguntzen bidezkoa.

Hala ere, aurreko datu ekonomiko horiek ez dira Patronatuak eginiko jardueren benetako agerpen bat, zeren Udalak zuzenean bere gain hartzen baititu inbertsioen eta funtzionamenduaren esparruko hainbat gastu, aurreko VI.1. atalean ikus daitekeen bezala.

Patronatuak egiten dituen jarduerak honako talde hauetan sailka daitezke:

- Ikastetxe publikoentzat eta ikastetxe publikoekin eginak.
- Jarduera federatu eta federatu gabeak, zeinetan Patronatuak instalazioak uzten eta Burlatako kirol klubek eta beste elkarte batzuek –Patronatuak unitate independenteak– zuzenduriko hainbat jarduera finantzatzen baititu.

c) Patronatuak berak antolatutako jarduerak:

Azken horiek egiten dira zerbitzuak alokatzen dituzten enpresen bitartez. Kontratuak esleitzen dira administrazio kontratazioari buruzko araudiari jarraikiz.

Jarraian, Patronatuak barne kontrolako sistemak hobetzeko komenigarritzat jotzen diren kudeaketa-gomendio batzuk agertzen dira:

- *Aurrekontuak onetsi behar dira horiek aplikatzen diren ekitaldia hasi baino lehen, eta behar den egunean likidatu behar dira.*
- *Langileen espedienteak dokumentuz behar bezala hornitzeko, langileen famili egoerari buruzko zinpeko aitortpenak urtero lor bitez.*
- *Administrazio kontratazio orotan publikotasun eta lehiakortasun printzipioa aplikatu behar da, indarreko legediari jarraituz.*

• *Udalak behar diren barne prozedura eta jardunbideak sortu behar ditu, Patronatuak eginiko jarduerak arrazoizkoak eta legezkoak direla ziurtatzeko. Era berean, bi erakundeen artean arlo honetako jarduera eta eskumenak argitu eta zehaztu behar dira.*

VII.3. KULTURA ETA JAIETARAKO UDAL PATRONATUA

Kultura eta Jaietarako Patronatuak 1999an agertzen dituen betebeharrak eta eskubide aitortuak 58 eta 54 milioi pezetakoak dira, hurrenez hurren (52 eta 54 milioi pezeta, hurrenez hurren, 1998an); beraz, 4 milioi pezetako defizita izan du (1998an 2 milioi pezetako superabita izan zen).

Izaera ekonomikoaren ikuspegitik, Patronatuaren gastu eta diru sarrerak honela xehekatzen dira:

	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	1999	1998	1999	1998
Diru-sarrerak				
Arte eta lanbide eskola	1	1	2	2
Bestelako diru sarrerak	3	3	6	6
Nafarroako Gobernuaren diru laguntza	–	1	–	2
Burlatako Udalaren diru laguntza	50	49	92	90
Guztira	54	54	100	100

	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	1999	1998	1999	1998
Gastuak				
Funtzionamendua	49	43	84	83
Transferentziak	9	8	16	15
Inbertsioak	–	1	–	2
Guztira	58	52	100	100

Ikus daitekeenez, gastu eta diru sarreren 1999ko egiturak antza handia dauka 1998koarekin.

Gastuen osaera, funtsean, zerbitzuen funtzionamenduaren ondoriozkoen eta herriko zenbait elkarten antolatutako kultur jardueretarako ekarpenen inguruan biltzen da. Funtzionamendu gastuen barnean sartzen dira herriko jaietarakoak, zeinek 18 milioi pezeta inguruko zenbatekoa baitute.

Diru sarrerei dagokienez, Patronatuak sorturiko baliabideak ez dira nahikoak, inondik ere, nola baiteko finantza-autonomia izan dezan, zeren horien ehuneko 92 Udalak berak emandako diru laguntzaren bidez lortzen baitira (1998ko ekitaldian, ehuneko 90).

Kirol Patronatuaren kasuan bezalaxe, aurrekontu-informazio hori ez da Burlatako Udalak kultur arloan benetan eginiko jardueraren agerpen bat, Udalak bere gain hartzen baititu hainbat inbertsio eta funtzionamendu gastu.

Langileen arloan eginiko azterketaren bidez ikusi ahal izan da ezen, aurreko ekitaldian bezalaxe, Udaleko hainbat langileri ordainsariak ematen zaizkiela, Patronatuaren kontura, herrietako jaietan hainbat lan egiten erabilitako aparteko orduengatik, eta ez dela egin PFEZerako egin beharreko atxikipena, ez eta Gizarte Segurantzarako kotizazioa ere, aipaturiko ordainsari horiek ez direlako sartzen langileen nominetan.

Patronatuak egiten dituen jarduerak honela laburbil daitezke:

a) Kultur prestakuntzako programak.

b) Kulturaren hedapena edo hainbat jarduera, hala nola kontzertuak, erakusketak eta abar.

c) Animazio/dinamizazio sozio-kulturala edo Patronatuaren diru laguntzak jasotzen dituzten zenbait talde eta kolektibok eginiko jarduerak.

d) Jai-sasoiak ekintza eta emanaldiak, hala nola herrietako festak, ihauteriak, eguberrietako programa eta abar.

Aipaturiko jarduera horiek egiteko beharrezkoak diren hornidurei eta zerbitzu-alokatzei dagokienez, ikusi ahal izan dugu, 1998ko ekitaldiari buruzko txostenean adierazi genuen bezala, hainbat alditan ez dela behar den esleipen-espeditatea gauzatu eta, ordea, beste batzuetan, esleipen prozedurak lehiakortasun eta publikotasun printzipioak, administrazio kontratazioak zuzendu behar dituzten horietan, urratu dituela.

Jarraian, Patronatuko barne kontroleko sistematik hobetzeko komenigarritzat jotzen diren **kudeaketa-gomendio** batzuk adieraziko ditugu. Kultur Patronaturako adierazitako gomendioak guztiz aplikagarriak dira Kulturakoaren kasuan ere; horrela, ba, haiek errepikatzeari itzuriko gatzazkio, eta berariaz Kultur Patronatuari buruz egin beharrekoak zehaztera mugatuko gara:

- Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakina indarreko ekitaldiko aurrekontuari erantsi behar zaio, aurrekontu aldaketa bat eginez, diru sarreren aurrekontuko hasierako aurreikuspenean sartu beharrean.

- Araudi fiskala era guztietako ordainsariei aplikatu behar da.

- Hilabetero eta urtero nomina-laburpenak egin bitez, saldoen berrikuspen eta adosteari dagokionez barne kontroleko mekanismoak indartzeko.

- Hirugarrenekin ezarritako harreman orok dagokion kontratu-dokumentua izan behar du oinarri, kontratazio araudian adierazitako betekizunak bete ondoren. Horretarako, komenigarria litzateke alderdien eskubide eta betebeharrak guztiak


jasotzen dituen kontratu-eredu normalizatu bat eskuragarri izatea.

Auditore Francisco Javier Sesma Masa jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2000ko irailaren 28an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. ERANSKINA: BURLATAKO UDALEKO ORGANIGRAMA, 1999KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ARABERAKOA



II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

- Diru-sarrereren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

**UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO
TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

Hilaren 18ko zure idazkia eta horri erantsitako behin-behineko txostena, Udal honen 1999ko ekitaldiaren fiskalizazioari buruzkoa, jaso ondoren, honako hau agertu behar dut:

- Udal Plana legegintzaldi honetan egingen da.
- Patronatuak hobeki kontrolatzeko eta zuen txostenean antzeman dituzuen arazoak konpontzeko kezka badu korporazio honek.

Burlatan, 2000ko irailaren 26an

Alkatea: José Luis Góngora Setuain



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

